

LEHENENGO EGUTEGI BIZKAITARRAREN ERREFRAU ZAHARREN TXORTEA

“Lenengo Egutegi Biskatarra” izenekoa kaleratu eban Sabino Aranak 1989. urtean zehar. Hormako egutegi lez, Euskal Herrian lehenengoa euskeraz, aurki. Aurreko urtean sakelarakoa bakarrik argitaratu baeban Sabinok berak, 1989. urte hatan bietarakoa kaleratu gura izan eta halantxe egin eban.

Orduko sasoiko erderazko egutegiak lez, egun bakotxeko orritxu bat ekarren irakurteko. Egutegiaren ganeko azalean edo agurrean dakarren lez, Bizkaiko euskaldunentzako eginan. Asmo garbia eukan ha eginkeran, Bizkaiko euskaldunengan *“Jaungoikoa eta Lagi-Zarra”-ren* aldeko gogoia sortutekoa, hatan be: “Ihoneek maite badozuz, neu be maiteko nozu. Bestelan, uretara jaurti nagizu”. Halan bada, “egutegi abertzalea” eritxon hareri.

Bertan danctariko argibideak emoten ahalegindu zan: historia gaiak, politika arlokoak, hizkuntzakoak, erlijinokoak, eta abar. Han argitaratutakoen artean, aitatu beharrekoa da, berak asmatu edota euskerara egokitutako izenak egutegi haretan hasi zala kaleratuten. Baina, lerrootara ekarri, beste zeozer ekarri gura izan dogu. Badira argibide hareen guztiareen artean Bizkaiko tradizinoari jagokozan hainbat errefrau edo esakun zahar be, ziur antzean, berak han-hor-hemen batuta.

Bizkaiera da nagusi esakuneotan, bai berben aldetik bai adizkeren aldetik be. Guk ahona, barriz, hilean-hileango errenkadan eta eurotan alfabetoaren arabera ekarri doguz esakuneok. Amaieran, herbaren batzuen esangurea hobeto ulertuteko, berbalapiko antzean, hiztegi laburra gehitu dogu. Asago barik, gatzozan, bada, maminera.

Urtarrila

- Agure onari, ez atepak itxi.
- Aldi txaburra bada, egun astia baino hoba da.
- Atzerrian lurra garratz, oina ipini egik maratz.
- Balizko oleak, burdinarik ez.
- Bihotza ta adimena gudan dira beharrago, iskiluak baino.
- Edonor da azarri, baina gudara doaz gitxi.
- Egia, latz eta labur.
- Ez egikek basotik hoanean, eder ez danik urian.
- Surik ez dan lekuan, kerik be ez.
- Urde lohiak, zitaldu.
- Zagokez isilik, eta ez daizu entzun gaiztorik.
- Zaran bat dagianak, bi dagiz.
- Zelangoa baista amea, halangoa ohi da alabea.

Zezeila

- Adion da bost ume: alaba bi ta hiru seme.
- Alaba umaginari, amea estalgi.
- Haretx asko dan urtea, besteak baino ez hobea.
- Edozein oilar, bere aldapean.
- Ezkondu baino, etxea lehenago.
- Lukikume, azeri.
- Oparinak nengian behargin, eta alperkeriak auzkin.
- Otsoak hartzari min leio.
- Zuk hau, nik hau: zozkereak emon dau.

Martia

- Adiskide bako bizitza, auzo bako heriotza.
- Asko badok, asko beharko dok.
- Atean uso, etxean otso: halako bizikerca, gaixo.
- Ekandu gaiztoa, belu ahaztu doa.
- Emakume eder eta aberatsa, edo ero edo zarata.
- Emakumea eta sardina, hautsetan ahozpez.
- Idi zaharrari, arran barri.
- Uri galduan, auzia eskuan.
- Urte edurtsua, garitsua.

Apirila

- Eskurean agora, okelea galtzen doa.
- Itsasoak, errekak eta iturriak eta ibaiak iruntsi.
- Jaki onak, dakarz gatxak.
- Jausi dan ezkurra, oroen su-egurra.
- Justuriaren atzean, euria.
- Lastozko buztana dauanak, atzera begira.
- Laztan eta apa? Leusindu eta kaltea.
- Legorrean hartu ez doa, arrankaria.
- Neskea, hazi dan lez; kirrua, irun dan lez.
- Ostikoa akuiluaganako, idiarentzat gaixo.

Maiatza

- Daukagunean nahia, gurari baga izan goaz.
- Ez da aldatsik, ibar bakorik.
- Ez eiozu eskatu daukanari, ta bai onesten zauzanari.
- Gibel ekatxari; bular aldi onari.
- Hutsik datorrena, berehalan bihurtu.
- Laster emoten dauanak, birritan emoten dau.
- Nahi ez dauanak ogenik, ines bei gaiztoaganik.
- Seinak dantzuna ezkaratzean, esan daroa atadian.
- Ukondoa hur da, baina mun egiten eskerga.
- Zeian etxea, urrezko atea.

Bagila

- Egia, erkoia.
- Etxean jopua ta oilarra, urte betean asko da.
- Eztia ta ozpin, gozo ta on egin.
- Lotsaga nindin; ogiz ase nindin.
- Haretxerean artera, ekandu gaiztoa hartu ahal da.
- Jauna, burkide gaizto.
- Lurraren umea, lurrak hazi daroa.
- Nahibako ezkontzea, nekea ta kaltea.
- Ondo egiok txiroari, Jaunak emongo deusk sari.
- Oski osoa nahiz eztena, eskuan baino oinean hobe.
- Ulerle onari, berba gitxi.

Garagarrila

- Ez eik galdu aldia, ta idoro daik guraria.
- Gaiztoto irabazia, iratxuak iratzia.
- Gaiztoto ohi danari, bildurra jarraigi, ta kaltea jaurki.
- Galdu ezkeru osasuna, da ezaguna.
- Galendua dabil, ubiren bila.
- Gatx egiten badok, hainbeste itxadok.
- Otsoren agotik okelea be, on.

Dagonila

- Ahuntzak ikusi garia, haina ez hesia.
- Ardao gozoak lau begi, ta oinik ez.
- Ardi txikia, beti bildots.
- Arrats gorri, goizean eguzki.
- Bizar hilari, lotsa gitxi.
- Edozein zidorrek, dau luperia.
- Erroiaren arrautzak, usakumerik ez.
- Gaiztoto ala ondo jan, hiru bider edan.
- Goiz gorri, laster euri.
- Goiz jagia, goiz gose; belu jagia, loz ase.
- Oilo gosea, beti soinulari.

- Oiloari oloa; astoati, lastoa.
- Orik ez dan herrian, ibar-jaun da azeria.
- Otsoak bere haragirean, ez eban jan.
- Otsoak otsoari, -gatxik ez; eta lapurrari lapurrak, laztan.
- Txakur goseak, ogia ames.

Iraila

- Aldats gorea, aldats beheera.
- Amuarrainak begi bi; sei ezkailuk hamabi.
- Artzainak hasarratu, gaztaiak agertu.
- Auzoko behiak, erroa luze.
- Aztertzen dago, ta burrustuko jat.
- Badaukazu zeugaz, jango dozu neugaz.
- Dagoanean, bon-bon; ez dagoanean, egon.
- Eguzkia nora, zapiak hara.
- Etxea erre ezkerro, uretan.
- Etxean ikusia, umeak ikasia.
- Guzurra esan neban mendian, neu baino lehenago zan herrian.
- Hi heure etxean, eta ni hemen.
- Itsua da, bahetik ez dakusana.
- Urdaia janda, garbaia.
- Zauriak hotzituago, minago.
- Zor zaharra, zor txarra.
- Zu beti ero; hotz ez dana bero.

Urria

- Diru gitxi daukanak, bekarz oinak eskuan.
- Edozerk dau izena.
- Edur asko dan urtean, garia; erle asko daukaguzanean, eztia.
- Ez ardao bitsurik, ez emazte bizartsurik.
- Gibel egiok ekatxari.
- Neure etxeko kea, lagunenekeo sua baino hoba.
- Txiroak intxausti dirudi: guztiok harrika beti.
- Urak dakarrena, urak daroa.

Zemendia

- Agurea ta labea, agotik berotu.
- Ardia ahuntzari, ule eske.
- Emongo badeustazu, luzatu ez eidazu.
- Ez beti, gaztai ta ogi.
- Gizon biziak, berea eskatu daroa.
- Leiak eta euriak, dakarrez eskura gariak.
- Ogiagaz gatzak, txikiago.
- Zekenaren bizian, kaltea; osasuna, haren heriotzea.
- Zozpalak dirudi bere egurra, ta egurrak bere zugatza.

Abendua

- Daukanak gabon, ez daukanari emon. Ez da hori egia, bai daukanak daukanaria.
- Egia da latz, eta garratz eta mergatz.
- Emakumea soloi, urdea basoi.
- Etorri badakik bilatuten doan gatxa, gondu dakiala.
- Igazko habietan, aurten txoririk ez.
- Leiak ta edurrak, garra dakarre eskura.
- Ogi gogorrari, hagin zorrotza.
- Ogi ta lasto, etxerako.
- Urte zaharrari, ostikoka beti; urte barria, orok onetsia.

Berbala pikoa

adion= egoki.

aldape= beherakada.

aldi= denhora.

aldi on= abagune, zori on.

amea— umea egin dauan ama.

apa= arpegian emoten dan musua. (ume.)

arran= joare, zintzarri.

auzi= kereila.

auzkin= auzizale.

azarri= ausart.

aztertu= induskatu.
baga= barik.
baist= bait-.
bizi= zorrotz, zoli. (pertso.)
bon-bon= parra-parra eralgi.
burkide= aurkako, lehiakide.
burrustu= eraso, oldartu. (nor-nori)
dagi= egiten dau.
dagiz= egiten dauz.
daik= -ko dok (dozu).
daizu= -ko dozu.
dakus= ikusten dau.
dantzu= entzuten dau.
deusk= deua (deutsu).
egikek= egin eik (egin eizu). (gero)
egiok= egin eiok (eiozu).
ekandu= ohitura.
erkoi= argal, mirri, makal.
ero= 1. mamala, memela; 2. zoro.
eroan= ohi izan. (aditz igarokorrakaz)
erro= titiburu. (abere.)
eskerga= gatx, nekez.
estalgi= babesgarri.
ezkailu= kizkailu, txipa. (arraina)
gaiztoto= dongaro, txarto.
galendu= eskarmentatu.
garbai= damu.
-ri gibel egin= -ri popea emon, hanka egin.
gondu= on egin, onurea atara.
joan= ohi izan. (aditz igarogatzakaz)
haretx= ezkur.
ibar= lautada, zelai.
idoro= bilatuten dana aurkitu.
ines egin= ospa egin.
iratxu— iditxu, mamu.

iratzi= gozatu.
irun= goruetan egin.
itxadok= itxadon eik (itxadon eizu).
jarraigi=jarraitu.
jaurki= eraso, ekin.
jopu= otsein, morroi.
kirru= amuko, iztupa.
leusindu= lausengatu, koipatu.
lotsaga— lotsabako.
supera= basatza, lupetza.
maratz= arduratsu, behargin.
mergatz= zakar, gozagatx.
mun egin- musu emon (arpegian izan ezik).
nindin= nendin, neinten.
ogen= hoben, erru.
onetsi= oneritxi, ontzat hartu.
oparin= beharrizan.
or= txakur.
oroen= guztien, orokor.
oski= oinetako, zapata.
-rean= -tik, -rik.
txabur= labur.
txiro= ezeuki, behartsu.
ubi= ibi, ubehera.
umagin= seindun.
ulerle= ulertzaile.
zagokez= egon zaitez. (gero)
zaran= otzara.
zauz= zaitu.
zeia= merkatu.
zozkera= zozketa.
zozpal= ezpal.

Iñaki Martiartu